



## COMPARECENCIA DEL ARARTEKO ANTE LA COMISIÓN DE INSTITUCIONES, SEGURIDAD Y JUSTICIA DEL PARLAMENTO VASCO CON RELACIÓN AL PROCEDIMIENTO JUDICIAL SOBRE XUBAN NAFARRATE.

Buenos días,

Comparezco ante esta Comisión de Instituciones, Seguridad y Justicia, a petición de la propia Comisión, que ha accedido a la solicitud que Oskar Matute García de Jalón, parlamentario y portavoz del Grupo EH Bildu, formuló en tal sentido el pasado día 7 de febrero.

Se solicita mi comparecencia para que, en palabras textuales, *“opine sobre lo sucedido en el proceso judicial del joven Xuban Nafarrate”*. No creo que sea necesario incidir, porque todos ustedes lo saben, en que Xuban resultó gravemente herido en el curso de una intervención de la Ertzaintza, en Vitoria-Gasteiz, durante la huelga general del día 29 de marzo del pasado año.

En concreto, se me pide que exponga mi valoración y mi opinión sobre el desarrollo del proceso judicial y que proporcione a la Comisión, en calidad de Ararteko, toda la información que pueda tener sobre el tema.

Con mucho gusto, paso a dar cumplimiento al requerimiento que se me hace.

### 1) Valoración del proceso judicial

Lo primero que tengo que decir es que el Ararteko no puede legalmente pronunciarse sobre las resoluciones judiciales ni valorarlas. Lo impide la Ley 3/1985, de 27 de febrero, que crea y regula la institución, cuyo artículo 13 dispone al efecto:

*“El Ararteko no entrará en el examen individual de aquellas quejas sobre las que haya recaído sentencia firme o esté pendiente resolución judicial. Suspenderá su actuación si iniciada esta se interpusiera por persona interesada demanda o recurso ante los Tribunales Ordinarios o el Tribunal Constitucional”.*

Por tanto, como Ararteko no puedo emitir la opinión que se me pide con relación al procedimiento judicial citado, cuyo desarrollo y resultado estoy, en todo caso, obligado a aceptar y respetar.



## **2) Información que pueda tener sobre el tema**

El Ararteko inició una actuación de oficio al conocer que Xuban Nafarrate había resultado gravemente herido en una intervención de la Ertzaintza, en Vitoria-Gasteiz, y que otro joven, Iñigo Cabacas, había sido mortalmente herido en otra intervención policial en Bilbao, acaecida unos días después.

Como consecuencia de los hechos se tramitaron sendos procedimientos penales, uno de los cuales, el referido a Xuban Nafarrate, es precisamente el que ha originado las preguntas que han motivado esta comparecencia.

La intervención judicial en el caso determinó, por las razones que les he señalado anteriormente, que nuestra actuación no pudiera comprender lo que constituía el ámbito propio del procedimiento penal, que se estaba dilucidando en dicho procedimiento, y tuviera que situarse en un plano esencialmente preventivo.

Nuestra actuación se dirigió sobre todo a verificar cómo se habían cumplido en las dos intervenciones policiales las recomendaciones que la institución del Ararteko ha formulado para prevenir posibles actuaciones policiales incorrectas, particularmente en lo relativo a la investigación interna y al uso de la fuerza, así como a proponer medidas para evitar que hechos tan graves pudieran volver a repetirse.

La información que nos proporcionó el Departamento de Interior sobre la actuación policial en la que resultó herido Xuban fue la misma que su titular facilitó a este Parlamento en sus comparecencias ante la Comisión de Instituciones, Interior y Justicia los días 24 de abril y 22 de mayo de 2012.

La institución del Ararteko no dispone, por ello, de información adicional a la que el propio consejero aportó en esta misma sede parlamentaria.

En consecuencia, no puedo facilitarles otra información que la que ustedes ya conocen.

Sí les puedo informar de la valoración que el Ararteko hizo a partir de la información recibida.

**a) La información no se adecuaba a lo que habíamos solicitado al Departamento de Interior**

Consideramos, en primer lugar, que la información no se adecuaba a lo que habíamos solicitado al Departamento de Interior.

Habíamos pedido al departamento que nos indicase si había abierto una investigación interna para esclarecer los hechos y que nos informase de la fecha en la que, en su caso, lo había hecho, de las actuaciones indagatorias que hubiera practicado en su seno y de las conclusiones que hubiera alcanzado.

Le pedimos también que nos aportase todos los elementos de juicio necesarios para poder verificar si el uso de la fuerza se adecuó a nuestras recomendaciones y que nos remitiera los documentos en los que hubiera quedado registrada la fuerza empleada y el control interno que los responsables policiales hubieran realizado.

Le solicitamos, asimismo, que analizase el contenido de las declaraciones que realizaron en el atestado los agentes intervinientes teniendo en cuenta lo que señalamos a este propósito en la Recomendación General 7/2011, de 28 de octubre (II.2.3).

En la recomendación expresamos que debe realizarse un control interno del contenido de los atestados para garantizar que reflejan fielmente la realidad de lo sucedido en lo que concierne al relato de los hechos que motiva su instrucción. Las dificultades que surgen a la hora de descubrir y probar que se ha producido una extralimitación en este ámbito, relacionadas fundamentalmente con la circunstancia de que los abusos que se puedan producir al respecto se ocultan normalmente bajo la apariencia de legalidad del ejercicio de las funciones policiales, nos han hecho llamar la atención de los responsables policiales sobre esta cuestión. En concreto, les hemos indicado que tienen que adquirir conciencia de que los agentes pueden abusar de la potestad que el ordenamiento jurídico les otorga para formular un atestado y que tienen que establecer mecanismos de control que eviten esas prácticas y permitan descubrirlas, en el caso de que llegaran a producirse.

En este caso, nuestra petición de análisis del atestado desde esa perspectiva obedeció a que entendimos que en la comparecencia que realizó el padre de Xuban Nafarrate, el día 9 de mayo, ante la Comisión de Instituciones, Interior y Justicia subyacía un reproche de esa naturaleza, fundado en las discrepancias existentes en algunos puntos entre la versión de los agentes que quedó recogida en el atestado y una grabación videográfica de la actuación policial.

La información que se nos remitió no dio respuesta a esas cuestiones.

Por un lado, carecía del grado de concreción y detalle que solicitamos para poder valorar si la fuerza empleada respetó los parámetros que recogimos en la Recomendación General 7/2011, de 28 de octubre. Además, nada expresaba acerca de si los agentes dieron el aviso previo a la utilización del material antidisturbios, ni sobre el control interno que los responsables policiales hubieran realizado, en su caso, del uso de la fuerza. No comprendía los documentos que habíamos pedido para verificar cómo se había realizado dicho control y si se había adecuado a las directrices que la institución del Ararteko ha formulado.

Tampoco indicaba cuándo se había iniciado la investigación y en lo que concierne a su contenido se limitaba a señalar que se había recabado la versión de los agentes y que se habían tomado en consideración las declaraciones que efectuaron en el atestado instruido a raíz de los hechos. No se aclaraba, sin embargo, si se habían llevado a cabo otras actuaciones indagatorias ni se justificaba la imposibilidad de realizarlas.

En fin, nada se señalaba sobre el análisis del atestado en los términos a los que me he referido anteriormente.

**b) Ez zen bete urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra, ikertzeari eta indarra erabiltzeari dagokionez**

Egindako ikerketaren eta indarra erabiltzearen gainean arduraz zitzazkigun gaiei buruzko informaziorik jaso ez genuenez gero, ulertu behar izan genuen ez zirela bete kontu horretaz urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean bildu genituen jarraibideak (II.1.1, II.2.1. eta IV atalak).

Gomendio hartan adierazi genuenez, indarra erabiltzea beti azken baliabidetzat hartu behar da, zorrozki errespetatu behar dira egokitasun, premia eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak<sup>1</sup> eta arrazoizko iritzi bat izan behar du

---

<sup>1</sup> “Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak ezartzen du polizia funtzionarioek modu honetan jardun behar dutela euren eginkizunak gauzatzeko: ‘beharrezko erabakitasunez eta berandutu gabe, horren araberakoa denean kalte larri, berehalako eta konponezin bat saihestea; jarduterakoan, gainera, kongruentzia, egokiera eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan” [5.2.c) art.].

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak printzipio hori berretsi egiten du, kideek, beren eginkizunak gauzatzeko, honela jardun behar dutela xedatzen baitu: ‘beharrezko erabakitasunez, indarraz arrazoizkoa dena baino harago baliatu gabe; gainera, egokitzapen, premia eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan’ (34.1. art.).

Orain dela gutxi Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemaren Ordenamenduari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak aipatu ditugun printzipio horiek bildu ditu eta segurtasun publikoaren arloan administrazioaren jarduna arautzen duten printzipio orokor bihurtu ditu. Honela:

oinarri, kasu bakoitzean hierarkia-nagusiek kontrolatu eta berretsitakoa. Horrez gain, gure ustez, agenteek unean bertan jakinarazi behar diote Aginte eta Kontrol Zentroari indarra erabiliko dutela, eta zehazki dokumentatu zer-nolako indarra erabili duten. Era berean, euren nagusi hierarkikoek egiten duten barne-kontrola dokumentatu eta berretsi behar dute.

Dakizuenez, proportzionaltasunaren irizpidea beteko bada, ezinbestekoa da indarra erabiltzeko erabakia lortu nahi den helburua lortzeko egokia izatea, helburu hori erdiesteko ez hain arriskutsuak eta egokiak diren beste neurri batzuk ezin erabili izatea, baita ere neurriak ez sortzea saihestu nahi direnak baino kalte larriagoak. Gainera, indarra ahalik eta gutxien erabili behar da iritsi nahi den helburua lortzeko. Beraz, kalte gutxien sortzen duen baliabidea erabili behar da, eta ahalik eta kalte gutxien egingo duen moduan baliatu.

Hori dela eta, indarra erabiltzean aipaturiko printzipio hori errespetatu ote den baloratzeko, zehazki eta xehe-xehe ezagutu behar dira kasu bakoitzean batera gertatu diren zertzeladak.

Horrexegatik da hain garrantzitsua, beti nabarmentzen dugunez, modu egokian idatziz jasota uztea neurria proportzioskoa izan den ala ez neurtzeko behar diren elementu guztiak.

**c) Herrizaingo Sailari eskatu genion egintzen ikerketa sakona, zorrotza eta alderdikierarik gabekoa egin zezala, artean halakorik egin ez bazuen.**

Ikerketaren inguruan egin genizkion galdera zehatzei erantzun ez zenez gero, berriro eskatu behar izan genion Herrizaingo Sailari egintzen ikerketa sakona, zorrotza eta alderdikierarik gabekoa egin zezala, halakorik egin ez bazuen, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorreko jarraibideak oinarritzat hartuta: bere esku zeuden ikertzeko aukera guztiak agor zitzala, frogak objektibotasunez balora zitzala eta argitu zitzala gaztearen familiak poliziaren jardueraren egokitasunaz azaldu zituen zalantza guztiak.

---

“Segurtasun publikoaren arloko administrazio-jarduerak honako printzipio hauek arautuko dituzte:

a) Legezketasun-printzipioa. Eskubideak eta askatasunak murriztea edo baldintzatzea dakarten egintzek lege-mailako arau baten baimena beharko dute. Nolanahi ere, murriztapenik gutxien dakarren neurria hautatuko da, eta arrazoitu egin beharko da interes publikoa babesteko beharrezkoa dela eta gauzatu nahi den helbururako egokia dela azalduz...

(...)

d) Esku-hartze publikoaren proportzionalitate-printzipioa eta bitartekoak iritsi nahi diren helburuen arabera egokitze printzipioa” (3.2. art.).

Horrez gain, erantsi genion ikerketa ezin zela mugatu eragindako agenteen beren bertsioa biltzera, beste ikerketa-jarduera batzuk egiteko ezintasuna justifikatzen ez bazen behintzat, eta agenteen bertsioa ezin zela, besterik gabe, ontzat eman.

Gogoratuko duzue, gomendio orokorrean adierazi genuen bizkor eta alderdikierarik gabe egin behar dela ikerketa. Gainera, gure iritzian, ikerketaren edukiak egintzak argitzeko egokia eta nahikoa izan behar du (II.1.1 atala).

- d) Herrizaingo Sailari eskatu genion urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean azaldutako ikuspuntutik azter zitzala (II.2.1, IV eta II.2.3 atalak) erabilitako indarra eta esku hartu zuten agenteek euren jarduera zela-eta atestatuan egindako deklarazioen edukia.**

Sail horrek ez zien erantzun erabilitako indarraz eta agenteek atestatuan egindako deklarazioen edukiaz egin genizkion galdera zehatzei. Horregatik, Herrizaingo Sailari eskatu behar izan genion bi alderdi horiek urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean azaldutako ikuspuntutik azter zitzala (II.2.1, IV eta II.2.3 atalak), arestian azaldu dugunez.

- e) Herrizaingo Sailari eskatu genion informazio zehatza eta ahalik eta xehetasun gehienekoa eman ziezaiola Nafarrate familiari Xuban zauritu zuteneko polizia-jardueraz.**

Azkenik, gure iritzian, polizia arduradunek informazio zehatza eta ahalik eta xehetasun gehienekoa eman behar zioten Nafarrate familiari Xuban zauritu zuteneko polizia-jardueraz, baldin eta, zirudien moduan, hori egitea eragozten zuen eremu judizialeko berariazko mugarik ez bazegoen.

Gure ustez, aholku hori bat zetorren Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuten jardueraz Herrizaingoko sailburuak Legebiltzar honexetan hartu zuen konpromisoarekin, baita ere oinarrizko eskubideak ustez larriki urratzen direnean ikerketan, gure ustez, baliatu beharko lireratekin jarraibideekin, biktimei familiei, inguruko pertsoneri eta gizarte osoari ikerketaz eman behar zaien informazioari dagokionez. Jarraibide horiek proposatzean, kontuan izan genituen "Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarriak eraginkortasunez ikertu eta dokumentatzeari buruzko printzipioak". Printzipio horiek Nazio Batuen Batzorde Nagusiak onartu zituen, 2000ko abenduaren 4ko 55/89 Ebazpenean. Izan ere, horietan indarraren erabilera berariaz aipatzen ez bazen ere, iruditu zitzaigun baliagarriak izan zitezkeela oinarrizko eskubideen ustezko urratze larrien edozein salaketa ikertzeko jarraibide gisa.



**f) Gai honetan epaileak esku-hartzea ez da oztopo Arartekoak jardun duen eremuan jardun dezan, ezta ere polizia arduradunek adierazi diegun moduan joka dezaten.**

Bukatzeko, zilegi bekit esatea, gure aburuz, esku-hartze judizialak ez ziola eragozten Ararteko erakundeari prebentzio mailan jardutea –egin zuen bezalaxe-, ezta ere polizia arduradunei eskatu genien informazioa ematea ere, kasu honetan gure gomendioak nola bete ziren egiaztatzen aldera.

Poliziaren jarduera batean kalte fisiko larriak sortu direla salatzen bada, demokrazia-sistemako mekanismo guztiak abiarazi behar dira oinarritzko eskubideak babesteko, eta mekanismo horietako bat da, hain zuzen, Ararteko erakundea.

Gure iritzirako, ikerketa judizial bat martxan egoteak ez du eragozten beste erakunde batzuek beren eskumen- eremuan iker dezaten, betiere epailearen esku-hartzeak berekin dakartzan mugak errespetatuz.

Ikerketa judizialaren helburua da egon daitezkeen zigor erantzukizunak zehaztea; aldiz, epaitegiez kanpoko beste erakunde inpartzial eta independente batzuek (hau da, herriaren defendatzaileek edo beste herrialde batzuetan horretarako dauden erakundeek, polizia-administrazioaren barruko organo edo instantziak edo Legebiltzarrak berak) egiten duten ikerketaren helburua da poliziaren jarduerarekin lotutako zertzeladak berehala argitzea, baita ere ikertzen den jardueran zer-nolako protokoloak, jarraibideak edo arauak egon diren, ea horiek egokiak izan diren eta zuzen bete diren. Epaitegiek zigor-erantzukizunik egozterik ez dagoela ebatziko balute ere, ombudsman batek edo beste erakunde batek epaitegiez kanpo egindako ikerketak gaitzetsi egin lezake poliziaren jarduera, funtzionamendu-arauak ez betetzeagatik edo administrazio onaren printzipioa eta arauak ez betetzeagatik, eta jarduera hori zuzentzeko neurriak har daitezzen eska lezakete. Horregatik, defentsa-erakunde edo ombudsman batek bultzatutako ikerketa, prozedura judizialarekin guztiz bateragarria izateaz gain, oso beharrezkoa ere bada kasu jakin batzuetan (hain justu, indarra erabili den polizia-jardueretan, kalte edo lesio pertsonalak sortzen badira). Horrela lortuko da Zuzenbideko estatu demokratikoak eskubideak bermatzeko bere mekanismo eta ahalmen guztiak erabil ditzan eta ezin besterenduzko printzipio hau baliaraz dezan: polizia-administrazioak men egin behar die legeari eta polizia-jarduera erregulatzen duten arau eta protokoloei, Zigor Zuzenbidearen mugei eta administrazio egokiaren betekizunei, administrazio praxi desegokia saihestuz.

Oro har, horiexek izan ziren Xuban Nafarrate zauritu zuteneko polizia-jardueraz atera genituen ondorioak.



Arartekoaren 2012ko azaroaren 30eko Ebazpenean biltzen dira gure jardueraren xehetasun guztiak eta etorkizunean horrelako egintzak berriro gerta ez daitezen egin ditugun proposamenak. Ebazpen hori erakundearen web orrian eskuragarri dago, baita ere agerraldi honetan aipatu dudan 7/2011 Gomendio Orokorra, Arartekoarena. Hortaz, ez dirudi beharrezkoa hemen gehiago luzatzea, zuek hala egin behar dudala uste ez baduzue behintzat.

Informazio hau zuentzat baliagarria izatea espero dut eta, edonola ere, argibiderik behar baduzue, zuen esanetara nago.

Eskerrik asko zuen arretagatik.

Iñigo Lamarca Iturbe  
Ararteko

Vitoria-Gasteiz, 18 de marzo de 2013